

Herriari buruz jakiteko

DVDa eta mapa
toponimikoa
argitaratu berri
ditu Udalak ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2006-05-04 ▶ IV. urtea ▶ 876. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Leitzan eginen dute aurten Natur Bideen Eguna

LEITZALDEA ▶

Seme-alaben
heziketa
ereduak
mintzagai

ESTAZIOA ▶ Plazaolako geltokiaren berreskurapena aldarrikatuz, han ezarriko dute festa-gunea igandean

EGITARAUA ▶ Ibilaldiak, musika, Iñaki Perurena egiten ari den 'Peru Harri' parkera bisita... izanen dira ▶ 7

Gurasoentzat hitzaldi sorta prestatu dute ▶ 7

L. TERRADILLOS



Bi apustu berezirekin agurtu dituzte orexarrek aurtengo santakutzak

OREXA ▶ Pilota eta herri kirol demek ikusmin handia sortu zuten; pintxo lehiaketarekin eta oilarraren igoerarekin amaitu zen eguna ▶ 6

TOLOSA ▶

Arrakasta
lortu du
Hodeiertzek
Indian
eginiko biran

Hango entzulegoaren «abegikortasuna» nabarmendu dute abeslariak ▶ 2

TOLOSA ▶

Emanzipazioa
hizpide izango
duen hitzaldi
sorta hasiko
da gaur

Besteak beste, kreditu eskaera, Etxebide eta Tolosako etxebizitzaren errealitatea aztergai ▶ 3

lagunen txokoa

▶ HITZAko harpidedunen artean

Maiatzaren 4,5,6 eta 7an
Ibarran burutuko den III. Garagardo Festarako
bi lagunentzako LAU AFARI EDER zozketatuko ditugu!
Erabaki al duzu nor gonbidatu?

Saridunak ostiraletik igandera argitaratuko dira HITZAn



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

KULTURA ▶



Hodeiertz abesbatza Bangalore hirian eskainitako kontzertuan. HITZA

Indiatik bueltan, etxean da berriro Hodeiertz abesbatza

«Lortutako arrakasta eta entzulegoaren abegikortasun ona» nabarmandu dituzte Tolosaldeko abeslariek

ESTI EZEIZA

Arrakasta handiarekin, Hodeiertz abesbatzak joan den astean amaitu zuen Indiako bira. Honen ondoren, taldekide gehienak Tolosan dira dagoeneko; hala ere, batzuk Asin geratu dira bidaiarekin jarraitzeko.

Hodeiertz izan da Indiako Gobernuak formalki gonbidatu duen Euskal Herriko abesbatza bakarra, Bangalore, Mumbai, Delhi eta Agrako Taj Majal bezalako inguru ezberdinetan aukeratu zituzten eskentoki bezala. Hain zuzen ere, azken honetan lehenengo aldia zen abesbatza batek herritarren eta atzerritarren aurrean kantatzen zuena.

Ostiralean, Ficci auditorio ospetsuan (Delhi hiria) eskainitako ekitaldiarekin amaitu

zuten bira Hodeiertzekoek. Beste behin, haien abesti sorta euskal kantuez nahiz atzerrikoez osatua eskaini zuten, «entzulego sutsu eta bero» baten aurrean. Emanaldiaren ondoren, zerbaiten hasiera islatzen duen ohorezko erritu bat egin zieten Indiako agintariek Tolosaldekoei. Pavan Varma eta Monica Mohta ICCRko (Harreman Kulturaletako Indiako Kontsejuak) zuzendariak, Xabier Sarasola Hodeiertzeko zuzendariordeak, eta Espainiako enbaxadore Indian Rafael Conde Sarok parte hartu zuten.

Emanaldi guztietan jaso zuten abesbatzekoek entzulegoaren eskerra eta harreta. «Zerbait arraroa indiarrengan», eskualdekoek adierazi zuten. «Bira osoa zoragarria izan bada ere, ezin dezakegu ahaztu Taj Majaleko tenplu sakratuan

abestu dugun bakarrak izan garela», gaineratu nahi izan dute Hodeiertzekoek. Honetarako, maitasunari eraikitako jauregian, P.T. Etchaunen *Maitia nun zira* doinua abestu ahal izatea eskatu zieten abesbatzekoek agintariei, eta hauek onartu egin zuten. Hala, lorategian zeuden entzuleen txaloe-kin batera, «momentu ahaztezin» bizitu zuten taldekideek.

Kontzertu bakoitzaren ondoren, Tolosako Ekinbide Etxeko (TEE) kideek eta Tolosako Udal-entzulego zinegotzi Andoni Iturzaetak eta Oscar Renedok opariak trukatu zituzten Indiako erakundeetako ordezkariak. Erregalien artean, Tolosako abesbatza lehiaketako CD bat, Gipuzkoari eta Tolosari buruzko liburu bat, eta Tolosa Fundazioko 750. urteurrenaren CDA.

EDURNE BLASCO ▶ HODEIERTZ ABESBATZAKO LEHENDAKARIA

«Orokorrean, abesti erritmiko eta mugituak nahiago dituzte»

Hamar egun pasatu dituzte Edurne Blasco eta Hodeiertz abesbatzako gainontzeko kideek Indiako lurretan. Denera, 30 pertsonak osatzen dute abesbatza, eta bera da lehendakaria.

Orokorrean, zer moduzko esperientzia izan da?

Oso polita eta interesgarria izan da. Bi urte igaro ditugu abesbatzakoek bira hau presatzen, eta ez genuen espero horrelakoa izango zenik.

Zer espero zenuen?

Ez genekien nolako harrera izango genuen; izan ere, Indian musika korak ez du tradizio handirik. Hala ere, oso esperientzia aberatsa izan da, ez genuen uste horrenbeste jende bilduko zenik kontzertuetara.

Hiru emanaldi egin dituzte.

Bakoitzetik zer nabarmendu-ko zenuke?

Hirurak ere oso bereziak izan ziren. Mumbaien eskaini genuenak, adibidez, oso akustika ona zuen. Tata Theatre aretoa da, Asia osoan entzute onena duena; gainera, oso antzoki esanguratsua da. Bestetik, Bangaloren emandakoa Indiarekiko hasierako kontaktua edo izan zen, lehendabiziko harrerama herrialdearekin. Azkenekoan, berriz, Delhikoan, nahiko nekatuta geunden, baina ongi, hala ere.

Zer moduz Taj Majaleko saioa?

Abesti bat kantatu genuen bertan, P.T. Etchaunen *Maitia nun zira*. Gainera, lehenengo aldia zen abesbatza batek han jarduten zuela; izan ere, tenplu edo hilobi sakratu bat da. Horregatik, oso gustura gaude. Jende asko hurbildu zen hara, eta hauek harridura geratu ziren.

Nolakoa da Indiako entzulegoa?

Orokorrean, ezberdina da Indiako publikoa, hemengoak bai-



NOELIA LATIBURRU

no zatatsua. Euskal Herrian eskainitako kontzertuekin alderatuz, hangoetan, mugikorren hotsak eta gehiago entzuten ziren, baita jendearen oihuak ere. Bangaloren, esaterako, azken abestietan jendea zutitu egin zen.

Zein abestik izan zuen arrakastarik handiena?

Bi indiar abesti kantatu genituen, eta ez dakit ongi ulertzen zuten edo ez, baina asko gustatu zitzaizkieten. Hala ere, nik uste dut orokorrean abesti erritmikoak edo mugituak nahiago zituztela lasaiki baino.

Inguruak ezagutzeko astia izan al duzue?

Bai, horretarako aukera ere izan dugu, asko bidaiatu dugu. Besteak beste, Delhi hiria, Taj Majaleko tenplua eta Bangalore ezagutzeko aukera izan genuen. Horrez gain, erosketa asko ere egin ditugu.

Bidaia honek jende berria abesbatzara hurbiltzeko baliu izan al du?

Bai, erakargarria izan daiteke publizitate modura. Ea horrela jende gehiagok izena ematen duen abesbatzatan, batez ere, mutilak.

Zeintzuk dira zuen hurrengo proiektuak?

Oso nekatuta etorri gara, eta lehenengo atsedean hartu behar dugu. Hil honetan Lizarran abestuko dugu, baina oraindik ez dakit noiz. Kanpora joateko asmorik ez dugu, behintzat.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurilitan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu libreak:

Eusko Jaurilitza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaltxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.

Osakidetzak. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaltxerako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalke administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

GIZARTEA ▶

Emantzipazioa hizpide, gaur abiaraziko den hitzaldi zikloan

Gazteei bideratuta 4 hitzaldi eskainiko dituzte guztira, Kultur Etxean, 20:00etan

NOELIA LATABURU

Tolosako Udaleko Gazteria sailak lau hitzaldiz osatutako zikloa antolatu du datozen aste-etarako. Hala, gaur hasi eta aste-artero gazteen emantzipazioa izango dute hizpide, Kultur Etxeko areto nagusian, 20:00-etatik aurrera. Gaurkoan, zehazki, *Kreditu eskaeraren inguruko azalpenak* izenburupean, gai honen nondik norakoak zehaztuko dituzte eta ohiko dudak argituko. Kutxa Etxebizitzako Idoia Goñi Agirresarobe eta Estibalitz Arregi Urdanpilletak helduko diote kredituen gaiari.

Gazteria teknikari Nerea Cerecedak adierazi duenez, «gazteengan eragin zuzena duten lanildoetatik ari gara lanean». Informazioa, aisi hezitzailea, sustapena eta emantzipazioa dira, hain zuzen ere, lanildo nagusiak. «4 ildo hauek dira gaztearen bizitzako ardurak, eta horregatik lantzen dira Gazteria departamentutik, beti ere zeharka, Udaleko beste sailekoekin lanean».

Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzek ere garrantzia hartuko dute ziklo honetan eta hitzaldi bat eskainiko zaie, maiatzen 25ekoa, alegia; «tolosar gazte askok izena eman duenez, osagarri gisa interesgarria gerta dakiokelako edozein gazteri, landuko diren gaiak zeintzuk diren ikusita», azaldu du Cerecedak.

Gazteria sailak Kutxaren babesarekin antolatu ditu hitzaldiak, eta «egungo gazteen errealitatearen isla» izan nahi dute. *Ogasuneko teknikari bat eta erregimen zibilak* eta *Etxebide* izango dira aurrez aipatu bi hitzaldiak osatuko dituztenak, hil honen 11n eta 18an, hurrenez hurren. Horretarako, Eusko Jauriartzako ordezkari bat bertaratuko da. «Hitzaldiak herriko nahiz kanpoko gazteentzat baliagarriak izatea espero dugu».

Gazteria sailak Kutxaren babesarekin antolatu ditu hitzaldiak, eta «egungo gazteen errealitatearen isla» izan nahi dute. *Ogasuneko teknikari bat eta erregimen zibilak* eta *Etxebide* izango dira aurrez aipatu bi hitzaldiak osatuko dituztenak, hil honen 11n eta 18an, hurrenez hurren. Horretarako, Eusko Jauriartzako ordezkari bat bertaratuko da. «Hitzaldiak herriko nahiz kanpoko gazteentzat baliagarriak izatea espero dugu».



Etxebide ere izango dute hizpide; argazkian Etxebideko zozketa. i. r.

EGUNEZ EGUN ▶

Gaur hasi eta ostegunero, lau hitzaldiko zikloa izango da. Guztiki 20:00etan izango dira, Kultur Etxeko areto nagusian.

HITZALDIAK

'Kreditu eskaeraren inguruko azalpenak'. Kutxa Etxebizitzako Idoia Goñi Agirresarobe eta Estibalitz

Arregi Urdanpilleta hizlariak gai honen gainean ariko dira, gaur. **'Ogasuneko teknikari bat eta erregimen zibilak'**. Astebete beranduago, maiatzaren 11n, gai hau jorrratuko dute. **'Etxebide'**. Eusko Jauriartzako etxebizitzako saileko ordezkari bat bertaratuko da Etxebideren gaineko informazioa luzatzeko

eta partaideen galdera guztiak erantzuteko. Hitzordua maiatzaren 18an izango da. **'Tolosako etxebizitzaren errealitatea'**. Tolosako Udaleko ordezkari bat ariko da, maiatzaren 25ean, hizlari lanetan. Honekin itxiko dute, hain zuzen ere, lau hitzaldiko zikloa.

HEZKUNTZA ▶

Hirukideko ikasleak Ajuria Enean

Erredakzioa ▶ Azken asteotan, Hirukidek *Haur guztiek irakasleak behar dituzte* mundu mailako kanpainan hartu du parte. Ekimenak lurralde garatuga-beetan dagoen premiaz jabetzeko aukera eman die ikasleei; helburuak hezkuntzaren esku-bidea aldarrikatzea eta hau kalitatezkoa izan dadila exijitzea izan dira. Proiektu honi amaiera emateko, iragan apirilaren 26an, Batxilergoko zazpi ikasleak eta irakasle batek mural erraldoia eraman zuten Ajuria Enean. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak hartu zituen, Euskal Herriko hainbat eskoletako beste ordezkariekin batera. Hirukideren izenean Uxue Goikoeak hitz egin zuen. HITZA


KULTURA ▶

'Corredor sin retorno' filma, gaur zine-klub saion

Kultur Etxeko areto nagusian eskainiko dute emanaldia, 21:30etik aurrera

N. LATABURU

Maiatzeko agendari ekingo diote gaur zine-klubeko antolatzaileek. Hil guztian zehar lau film eskainiko dituzte, ostegunero. Gaur Samuel Fuller zuzendariaren *Corredor sin retorno* pelikularen txanda izango da. Interesa duten ikus-entzuleek Kultur Etxeko areto nagusira jo beharko dute, 21:30ean.

Corredor sin retorno filmak hainbat sari eskuratu zituen bere garaian. Esaterako, Valladolideko (Espainia) Urrezko Galburua irabazi zuen 1966. urtean.

TELEFONOAK ▶
Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea**. Osasun z.: 653212
 ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde**. Medikua: 65 23 39
 ▶ **Asteasu**. Medikua: 692423
 ▶ **Baliarrain**. Medikua: 889003
 ▶ **Berastegi-Elduain**. Medikua: 683361

▶ **Bidegoian**. Medikua: 681134
 ▶ **Ibarraldea**. Osasun ebea: 672411

▶ **Ikaztegieta**. Medikua: 653329
 ▶ **Irura**. Osasun zentroa: 690720
 ▶ **Leitza**. Osasun z.: 948 510800
 ▶ **Orendain**. Medikua: 655595
 ▶ **Orexa**. Medikua: 682228

▶ **Tolosa**.
 ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ San Esteban: 006800
 ▶ Gernikako arbola: 006900
 ▶ Amaroako dispen.: 672637
 ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ **DYA**: 672536
 ▶ **Gurutze Gorria**: 674888
 ▶ **Villabona**. Anbulat.: 006970
 ▶ **Zizurkil**. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.
 ▶ Renfe: 902 24 02 02
 ▶ Donostiako autobusa: 361740
 ▶ Tolosaldea bus: 650621
 ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 ▶ **Taxia**: 670420
 ▶ **Taxia (Leitza)**: 608 873016

Besterik.
 ▶ Ertzaintza: 538820
 ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 ▶ Tolargi: 650016
 ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 ▶ Tolosa gasa: 675320

ALKIZA ▶ KULTURA

Mapa toponimikoa eta DVDa argitaratu berri ditu Udalak

Pello Joxe Aranburuk herriko historiari buruz egindako liburua berrargitaratu du, ale gutxi batzuk gelditzen baitziren



Alkizari buruzko datuak biltzen dituzte argitalpenek; argazkian, herriko eliza eta udaletxea. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Hiru argitalpen atera berri ditu Alkizako Udalak. Horietako bi, herriko mapa toponimikoa eta DVDa, berritasunak dira, eta hirugarrena, herriko historiari buruz Pello Joxe Aranburuk idatzitako liburuaren berrargitalpena. Bai mapa eta bai DVDa herritarren artean banatu dituzte, doan. Eskuratu nahi dituenak ere badu aukerarik. Mapa 5 eurotan eta DVDa 12

eurotan, leku hauetan erosi daitezke: Alkizako udaletxean, herriko hiru tabernetan, Tolosaldea Tour-en egoitzan eta Tolosako Arteka dendan.

Udalak jasotako eskaerari erantzunez egin dute mapa toponimikoa. Imanol Goikoetxea izan da egilea, eta Oilategitik elkartekoek emandako informazioaz gain, Patxi Arzamendik egin berri duen Alkizako herri bideei eta ondareari buruzko lanaz baliatu da. Mapan

Alkizako leku, etxe, baserri, bide eta abar zehazten dira. 8.990 euroko kostua izan dute ateratako 2.000 alek, eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza 5.950 eurokoa izan da.

DVDari dagokionez, Galdare enpresa joan zitzaion Udalari proposamena egitera. Enpresa horrek ETBrentzat *Barne-barne*etik saioa egiten du. Euskal Herriko herriei buruzko dokumentalak ematen dituzte bertan. Udalak onartu zuen propo-

ALKIZAKO MAPA
1/7.500



Alkizako mapa. HITZA



Alkizako DVDa. HITZA

samena eta DVDaren gidioia zehaztu zuen Galdareekin. Herriko historia, arkitektura, ohiturak, festak eta abar azaltzen dira, 25 minutu irauten duen grabaketan.

Azkenik, *Alkiza auzo eta hiri-bilduaren azterketa historikoa (1348-1950)* liburuaren berrargitalpena egin du Udalak, liburuaren kopuru txikia baitzuen. Guztira, 500 ale atera ditu. Horietatik 100 jaso ditu Pello Joxe Aranburu alkizarrak, egile bezala dagozkion eskubi-deengatik, Udalarekin sinatutako hitzarmena dela eta. 20 eurotan salduko dute liburua, baina oraindik ez dute zehaztu zeintzuk izango diren salmenta lekuak.

ADUNA ▶

Beterriko Liburua literatur aipamen ekitaldia, gaur

Adunako Udaleko kultur aretoan egingo da gaur, 19:30ean, Beterriko Liburua literatur aipamenaren ekitaldia, nahi duen guztiarentzat irekia. Bertan izango da idazle saritua.

ANOETA ▶

Gimnasia eta bidaia Alkartasunarekin

Anoetako Alkartasuna Biltokiak jubilatuentzako gimnasia ikastaroa antolatu du. Hilaren 16tik ekainaren 16a bitarte izango da, 11:30etik 12:30era. Izen-ematea Biltokian bertan egin behar da. Ikastaroak 10 euro balio ditu. Bestalde, Kalagorrira (Errioxa, Espainia) bidaia antolatu du Alkartasunak. Hilaren 26an egingo dute eta 8,5 euro ordaindu behar dituzte hara joan nahi dutenek. Gosaria eta bazkaria sartzten dira prezioan. Zapata fabrika bat, upeltegi bat eta zainzuri enpresa bat bisitatzeko aukera izango dute. Izen-ematea ere Alkartasunaren bertan egin behar da.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita jasoko dute gaur KZgunean

Anoetako KZgunean tutorearen bisita jasoko dute gaur. 16:00etatik 20:00etara bitartean izango da, eta bi orduko mintegia emango du, 17:00etatik 19:00etara, *Komunikatu posta elektronikoa*ren bidez izenekoa. Ez da beharrezkoa izena aurretik ematea, KZgunera azaltzea nahiko da.

iragarki laburrak ▶

LANA

Etzeko lanak. Pertsona bat behar da etzeko lanak egiteko. Deitu 14:00etatik 21:00etara. 669 21 33 37.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Iritzia. Webgunean azaltzen diren albistei buruzko iritzia emateko aukera duzu.


TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

207 PEUGEOT

PILOTA ▶

Denetariko emaitzak HITZA Txapelketan

Eskualdekoek jokaturako partidetan garaipenak eta porrotak egon dira; seniorretako derbian Zazpi-Iturri garaile



HITZA Txapelketan jubenilek asteartean jokaturako partidetan. N. URBIZU

NEREA URBIZU

HITZA Pilota Txapelketak aurre-
ra darrai. Partidak batean eta
bestean jokatzeko ari dira,
nahiz eta baten bat bertan be-
hera geratu behar izan den.

Frontoietara jendea ere joa-
ten ari da hauek ikustera. Egun
hauetan zehar derbiren bat
ikusi ahal izan da, zehazki Beo-

tibarren Zelaia-Ugartemendia
eta Aranzabe-Mugikarena.
Kasu honetan, Zazpi-Iturrikoak
izan ziren garaile, 22-15eko
emaitzarekin.

Asteartean Beotibarren
Mendizabal-Azkarate eta Ge-
rrero-Arkoitza aritu ziren, lehe-
nengo bikoteak nagusitasuna
erakutsiz, eta hasiera-hasiera-
tik aurkariak mendean hartu-

rik. Akats asko egin zituzten
galtzaileek, emaitzan argi isla-
turik dagoenez: 22-5. Portu-
Txurruka eta Alonso-Mendia
bikoteen partida ez zen jokatu.
Nagusietan ere Onsalo-Eraso
aritu ziren, eta aurkariak 8 tan-
to egin ahal izan zituzten.

Larunbatean Beotibarren
11:00etan Telleria-Senperena
eta Elurbe-Beloki ariko dira, 22
urte azpikoaren artean. Ondoren
Aspe-Orbegozo, Aurrera-Saia-
zekoak ere, eta azken partidari
Olaetxea berastegiarrak Jaure-
girekin jokaturako du, arerio Zu-
fiurre-Azanza izanik. Benja-
minek jokaturakoaren artean,
derbian dago bikote irabazle
bakarra: Sagastume-Altuna
izan ziren garaile billabonata-
rren aurka. Emaitzak ez dira
onak izan alebiren mailan, es-
kualdekoek galdu egin baitzi-
tuzten. Infantilen mailan, Ur-
bieta-Zinkunegi alkizarrek ga-
raipena lortu zuten, Nazabal-
Karrera Behar-Zana-
koek ere: Aurrera-Saiazeko
Landa-Galarragak galdu egin
zuten.

Gaur eta bihar ere partidak
izanen dira hainbat herritan:
gaur Beotibarren, 19:30ean,
eta bihar Adunan, 19:00etan.

ALEGIA ▶ MUSIKA



Asteburuan 3 abesbatzek elkarrekin abestu zuten elizan. HITZA

Kataluniarren asteburua

Txintxarri Txiki abesbatzarekin ibili dira

N. URBIZU

20 haur eta gazte etorri dira
Bartzelonako Beguesetik Ale-
giara, Coral Infantil Montau
eta Cor Ad Libitum abesbatze-
tako kideak. Txintxarri Txiki
abesbatzarekin zuten harre-
manaren bitartez izan dira
bertan, eta haien etxeetan
hiru egun pasatu dituzte.

Txintxarriek abestietan
maila bikaina erakutsi zuten;
azken urtean nabarmen igo
da abesbatzaren kalitatea.
Montau haur abesbatzak Ka-
taluniako abesti herrikoiak
abestu zituzten. Cor Ad Libi-
tum gazte koroak, aldiz, *Hymn
to Freedom* obra. Txintxarriko
kideek txintxarriak oparitu
zizkieten kataluniarrei oroiga-
rri gisa, eta Beguesekoek mu-
sika notaren figura bat haiei.

Truke kultural eta soziologi-
koa izan da: Donostia eta Ale-
giardea bisitatzeaz gain, afaria
egin zuten Alegian. Txintxarri
Abesbatza Kultur Elkarte-
ko arduradunen ustez, «elkar-
trukea baikorra izan da, kultu-
ralki, soziologikoki, eta baita
hizkuntzaren aldetik ere: giro
aparta egon da».

Txintxarri Abesbatza Kultur
Elkarteak eskerrak eman nahi
dizkie Alegiako Udalarari eta
parrokiari eta, bereziki, Txin-
txarri Txiki abesbatzako kan-
tarien gurasoei, «truke hau
antolatzen eta prestatzen den-
bora asko eman dutelako, lana
eta haien inplikazioa handia
izan delako. Ilusio handiz
ekintza guztien xehetasunak
prestatzen egon dira, eta adis-
kidetasun giro ikaragarria
sortu dute Kataluniakoekin».

ORENDAIN ▶ GIZARTEA



Lazkao Txiki bertsolaria gogoan, jai egun ederra igandekoa

N. Urbizu ▶ Xabier Amuriza bertsolariak *Lazkao Txiki* bertso ikuskizuna eskaini
zuen Orendaingo Eltxo elkartearen. Herri bazkaria girotu zuen igande arratsaldean,
eskuineko irudian ikusten den bezala. Emanaldia arrakastatsua suertatu zen, jen-

detsua eta herritarrak oso gustura geratu ziren Amurizak eskainitako saioarekin.
Galtzaundi Euskara Taldeak antolatu zuen ekitaldia. Lazkao Txiki bertsolaria ahotan
izanik, herri bazkari ostean kantuan eta bertsoan aritu zen bertsolari ezaguna. HITZA

OREXA ▶ SANTAKUTZAK

Igo da oilarra festen amaiera iragarritz

Atzoko egitarauaren baitan eginiko pilota eta herri kirol apustuek ikusmin handia sortu zuten herritarrengan

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den ostiralean hasi eta atzokoa izan zen aurtengo santakutzen azken eguna. Eta ohikoa den moduan, hasiera oilarraren jaitsierak iragarri bazuen, haren igoerak agurtu zituen atzo jaiak datorren urterarte. Iluntze partean igo zen oilarra. Une hori iritsi arte, ordea, festa izan zen nagusi Orexan.

Lehendabiziko hitzordua herriko pilotalekuan izan zen. Eguerdin alderako herritar ugari bildu zen bertara, pilota par-

tidu erakargarria baitzuten zain; batetik Odei Iturriotz pilotaria, eta bestetik herriko selekzioa nor baino nor aritu ziren. Herriko selekzioa osatzen zuten hiru pilotariek errazago izango zutela zirudien, baina ez zen horrela izan, apustua 10 eta 22ko emaitzarekin Iturriotzek irabazi baitzuen.

Partidua amaitu bezain pronto jazarlekuetatik altxa eta udaletxe ondoko zelaira abiatu ziren denak ikusmin handia sortu zuen beste apustu bat ikustera. Kasu honetan ere herritarren arteko apustua izan

zen, nagusien eta gazteen artekoa, hain zuzen. Antza, «gazteak lehengo lanetan ez dira hain trebeak» nagusiek botatako esanari eginiko erantzun moduko bat izan zen atzo burutu zuten sega apustua. Eta badi-rudi esan hori oker dabilela, gaztea gailendu baitzen nagusiaren aurka.

Indarberritzeko premia ere bazen, eta tabernan elkartu ziren, bertan egitekoa baitzen pintxo lehiaketa eta dastaketa. Iluntzerako, berriz, oilarraren igoerarekin jaiak agurtzea baino ez zen geratzen.



Astoeak eta astakumeak ere ez zuten hutsik egin atzokoan. I. T.



Odei Iturriotz pilotaria herriko selekzioa baino gehiago izan zen. I. TERRADILLOS



Jende ugari ikusi nahi izan zuen sega apustu berezia. I. TERRADILLOS

IBARRA ▶ III. GARAGARDO FESTA

19 garagardo mota dastatzeko aukera gaurtik igandera bitarte herriko plazan

Tolosaldeko Arraun Klubeko neskek irekiko dute III. Garagardo Festa

I. TERRADILLOS

Gaur irekiko ditu atek Ibarra-ko arraunlariek, Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak, Haitzetan Raju mendi taldeak, Segi-k eta Ibarra Racing-ek antolatutako Ibarra III. Garagardo Festa. 18:00etan egingo dute irekiera, txupinazoarekin eta zintaren mozketarekin, eta ardua hori aurtengo Gipuzkoako Batel Ligaxkako, Gipuzkoako Txapelketako eta Euskadiko Txapelketako irabazleak izan diren Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) neskek izango dute; izan ere, «herriaren alde lan egin duen talde edo pertsonaia ezagun batek egiten du omenaldi gixa», eta antolatzaileek beraiek aukeratu dituzte aurtengo festarako. Zinta moztu ostean, TAKekoak izango dira lehen garagardo edango dutenak, eta afaltzera ere gonbidatuko dituzte.

Gaur eta igandean, 18:00etatik 00:00etara egongo da zabalik azoka, eta ostiralean eta larunbatean, berriz, 18:00etatik 02:00etara. Ohikoa den mo-

duan, garagardo mota ugari dastatzeko aukera izango da; hain zuzen ere, Frantzia, Belgika, Australia, Ingalaterra, Danimarka, Espainia, Irlanda, Amerikako Estatu Batuak, eta bertako 19 garagardo mota egongo dira, eta garagardo atsegin ez duenarentzat, aurreko urtean bezala, 5 kalimotxo mota desberdin jarriko dituzte. Gainera, pitxarrekin batera bidaiaren zozketarako txartelak ere banatuko dituzte. Halaber, edateko aukeraz gain, ohiko jakiak probatu ahal izan-

III. GARAGARDO FESTA ▶ EGITARAUA

OSTEGUNA, MAIATZAK 4
18:00. Azokaren irekiera.
21:30. *Ya saldra* antzerkia.

OSTIRALA, MAIATZAK 5
18:00. Festaren hasiera.
23:00. Gose-ren kontzertua.

LARUNBATA, MAIATZAK 6
15:00. *Ezetz berriak 60 kilo sagar erre jan!* Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak egiten ari

den *Sua* filmarako apustua. Animatzen denak Izaskungo plazan agertu beharko du.
18:00. Festak plazan jarraituko du.
18:30. *1, 2, 3... Inaxito* antzerkia haurrentzat, Trikuharri taldearen eskutik.

IGANDEA, MAIATZAK 7
18:00. Azokaren hasiera.
18:30. Herri kirolak.

go dira, Ibarra-ko plazan horretarako jarri dituzten 2 karpetan. Hirugarren karpa edaria zerbitzatzeko baliatuko dute.

Ekitaldiz blai

Lau egunetan banatuta hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera

izango da. Horien artean, larunbatekoa da bereziena; izan ere, Eneko Aritzaren Lagunak filmagintza taldekoak egiten ari diren *Sua* filmarako apustu bat grabatuko dute: *Ezetz txerriak 60 kg sagar erre jan!* Bertan parte hartzera animatu nahi dute jende guztia.

LEITZA ▶ NATURA

Natur Bideen Eguna igande honetan eginen dute, Leitzan

Estazioaren berreskurapena aldarrikatuz, bertan ezarriko dute festa-gunea; ibilaldiak, bisitak, musika... aukera anitza

JAIONE ASTIBIA

Igandean, maiatzaren 7a, eginen dute Natur Bideen Eguna, Plazaolako tren tikiaren trenbide berreskuratuan, eta Leitzan eginen ere, bertako Estazioan, tren haren geltoki izandakoan.

Aurtengo bide berdeen eguna Leitzan eginen dute, hain zuzen ere, Estazioaren berreskurapena aldarrikatuko dutelako. «Leitzako geltokia hondamen egoeran dago, eta gune hau ere berreskuratu daitekeela erakutsi nahi dugu. Orain arte, bertan dauden eraikinen jabegoa auzian zegoen, baina jada hori argitu da; Nafarroako



Zaldiz, oinez, birringaz... HITZA

Gobernuarenak dira. Orain horiek berreskuratzeko aukerak aztertu behar dira», azaldu dio HITZARI Ezkutarik, Plazaola Pa-

tzuegoko teknikariak. «Estazioaren berreskurapena aldarrikatuko dugu festa honekin».

Festaren gunea Estazioan kokatuko dute. Handik aterako dira trenbidean zeharreko aukerako ibilaldiak, motzagoak edo luzeagoak, helduentzat nahiz umeentzat (azken honetan, pailazoak izanen dituzte bidelagun gaztetxoek). Aitatu ibilaldietako bat Lekunberriko geltokitik aterako dela Leitzaldera. Kasu honetan, 09:00etatik 10:00etara egonen da irekita hango informazio gunea.

Eguerditik aurrera, bestalde, Iñaki Perurena egiten ari den *Peru Harri* interpretazio gunea bisita gidatuak egiteko mo-

NATUR BIDEEN EGUNA ▶ EGITARAUA

Egunean bertan, Leitzako Estazioan egonen da izena emateko mahaia, ibilaldietan, nahiz bisita gidatueta parte hartu nahi dutenentzat. Haei hamaiketakorako txartelak banatuko dizkiete.

IBILALDIAK HELDUENTZAT, 09:00ETAN

Leitza Iparra. Estazioa-Berastegiko muga; 10 km.
Leitza Hegoa. Estazioa-Uitziko tunela; 14 km.
Lekunberri-Leitza. Lekunberriko geltokia-Leitzako geltokia; 15 km.

IBILALDIAK UMEENTZAT, 11:00ETAN

Leitza-Erreka. Leitzako geltokia-Erreka auzoa; 4 km; pailazoekin.

BISITA GIDATUAK

12:00etan hasi eta ordu erdiro. Iñaki Perurena egiten ari den *Peru Harri* parkera.

ENTRETENIGARRIAK

10:00-14:00. Globo aerostatikoen erakustaldia.
12:00. Skifaia Folk taldea.
12:30. Hamaiketakoa.

dua ere izanen dute, joan-etorrian ibiliko diren mikrobusean. Ordu erdiko bisitak izanen dira. Trenbidearen Leitzaldeko zatia erakustez gain, bertan dauden egitasmoen berri ere eman nahi dute antolatzailuek honekin. «Oraindik egiten ari den proiektua da hau, baina zonaldean abian diren proiektuetako bat da», adierazi dute.

Ibilaldietarako edota bisitetarako batez ere, Estazioko informazio-gunean izena eman

behar omen da. Horrela, parte-hartzaile bakoitzari txartel bana emanen diote, 12:30 aldera, ibilaldiak bukatutakoan egiteko duten hamaiketakorako baliagarri izanen dena.

Jakitera eman dutenez, ikusizunak ere izanen dira Estazioan igandean. Izan ere, eguerdian, Skifaia Folk taldeak kontzertua eskainiko du eta goizean goizetik, «eta beti ere eguraldiak uzten badu», globo aerostatikoen erakustaldia izanen da han inguruko larrean.

GIZARTEA ▶

Gurasoentzat hitzaldi sorta prestatu dute seme-alaben heziketa ereduez

Prebentzio Programak eta Guraso elkarteek antolatu dituzte

J. ASTIBIA

Aresoko eta Leitzako gurasoei bideratuta, «seme-alaben heziketa ereduez» ikastaroak antolatu dituzte bi herrietan, Drogomenpekotasunaren Prebentzio Programak eta bi herrietako eskoletako guraso elkarteek elkarlanean.

Urtero egin ohi dituzte hitzaldiak, tailerrak... Aurten gura-

soek beraiek proposatutako gaiak aintzat hartu eta hitzaldisortak antolatu dituzte. Ainhoa Saiz psikologoa, Askagintzan lan egiten duena bera, izanen dute hizlari, drogomenpekotasun prebentzioan eta heziketa prebentiboan aditua eta eskarmentukoa.

«Hitzaldiak baino tailerrak ere badira, mezua erraz iristeko moduan, aplikatzeko mo-

duak ere erakusten direlako», azaldu dute Prebentzio Programako teknikoeak.

Leitzan, gaurtik hasi eta hilaren 11n, 18an eta 25ean dituzte egitekoak hitzaldiak, 15:00etatik aurrera, Erleta eskolako bideo-gelan; Areson, hilaren 2an egin zuten aurrenekoa eta hurrengoak hilaren 9an, 16an eta 23an egiten dituzte, 15:00etan hasita, bertako eskolan ere.

Seme-alaben heziketa ereduaren hariari tiraka, eginkizun horretako hainbat alor landuko dituzte: ama eta aitaren erroletan eragiten duten faktoreak; hezitze moduak; hezitze jarrerak (kongruentzia, onarpena, autonomia, autoritatea, autoestima); heziketarako gaitasuna (egoeren analisia eta erabaki-hartzea, entzunketa aktiboa, gatazken konponketa eta negoziazioa); garapen ebolutiboa... Gaia hauek guztiak kasu praktikoekin hornituko dituzte.

Bi herrietako gurasoak hitzaldi hauetan parte hartzera gonbidatu dituzte antolatzailuek. Goizuetan ere beste hainbeste egitekoak dira.

LEITZA ▶

Ohiko batzarra bihar eginen dute Leitzako Udalean

ERREDAKZIOA

Bihar 09:00etan eginen dute batzarrean, ohiko puntuez gain, beste bi izanen dituzte mahai gainean. Batetik, «3. poligonoko 161. lurzatiari dagokion Hirigintza Planaren aldaketa puntualaren behin-behineko onespena»; bestetik, «Aurrera taldeari futbol zelaia alokatze kontratuaren onspena».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Aralar VI. Txirrita mendia ibilaldia antolatuta du Oargi mendia taldeak hilaren 21erako. Amezketatik 06:00etan abiatu eta Aralarko 13 gailur igo behar dira. 45 kilometro dira guztira, Amezketan amaitu arte. Izen-ematea, 943 67 56 12an edo oargi@telefonica.net, 10 eurotan.
Villabona. Jesusen Bihotza ikastola, 40. urteurrenean erakusketa bat egiteko, ikastolako argazkien eta dokumentuen bilketa egiten ari da. Informazio gehiago 943 69 23 22an.

HITZALDIAK

Tolosa. Adinekook zer eskaini diezaiokegu gizarteari? Zer eskaini diezaguke adinekooi gizarteak? 17:30ean, Euskal Herria plazako zentro sozialean. Nagusilane, Iturriza eta Harizpe jubilatu elkarteek eta Tolosako Udalak antolatuta.
Tolosa. Kreditu eskaeraren inguruko azalpenak. 20:00etan, Kultur Etxean.
Villabona. Artikulazioen desgastea nola eraman. 17:00etan, Biltoki jubilatu elkarteak.

MUSIKA

Tolosa. Donejakue bideko musika. Chandra Varona, Estibaliz Ponce eta Paloma Ramos. 20:00etan, Santa Klara komentuan.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Samuer Fuller zuzendariaren *Corredor sin retorno*. 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
21:00-22:00. Gora Euscad! Txistulari.
21:00-23:00. Gau bero musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶



Tasio Etxarte (Tolosa). «Burgos. Gure aurrean, Mantxako kanal bukaezina (274 kilometro)».



Silvia Mateo (Tolosa). «Aste Santuko egun horietako batean Uzturrera igotzeko aprobetxatu nuen eta argazki hau atera nuen gurutzetik gertu. Tolosa behelainoan murgildurik, ikuskizun ederra».



Joseba Iturbe (Tolosa). «Argazki hau Aste Santuko oporretan aterata dago Asturiasko Llanes herrian. Bertan itsas ertzean pasealeku eder bat dago, eta zuhaitz kurioso hau aurkitu nuen».



Iñigo Alustiza (Ibarra). «Aste Santuan Finlandian ateratako argazkia da, apirilaren 16an, Lahti hiri ondo Vesijärvi lakuan (suomieraz, *urezko lakua*). Tolosaldeko bi gazte, garagardo botila bana hartuta, ilunabar zoragarriaz gozatzen. Aurrean, erabat izoztutako lakua».



Josune Azpirotz (Iruñea). «Cambrilsen ateratako argazkia».

AGURRAK ▶




ZORIONAK
Garbi eta Markel (Berastegi-Tolosa).
27 urte eta urtebete.
Zorionak ebekoen partetik.

URTE ASKOAN
Unai Artola (Tolosa). Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik

LS B ANDOAIN
BATXILERGOAK:
LA SALLE-BERROZPEN

Giza eta Gizarte-zientziak
Natur eta Osasun-zientziak
Zientzia eta Teknologikoa



zure etorkizuna, gure erronka

Apirilak 24 tik-Maiatzak 5 arte
Aurrematrikulak- BATXILERGOAK

La Salle etorbidea, 5
20140 Andoain Gipuzkoa

Tel.: 943 590557

Fax: 943 300563

www.lasalleberrozpe.com

